

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA JUSTICIA E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

RELACIONES INSTITUCIONALES Y
PORTAVOZ DEL GOBIERNO

ADMINISTRACION LOCAL

EDUCACION

SALUD

DESARROLLO RURAL Y MEDIO
AMBIENTE

ASUNTOS SOCIALES FAMILIA
JUVENTUD Y DEPORTE

CULTURA Y TURISMO

OBRAS PUBLICAS TRANSPORTES Y
COMUNICACIONES

VIVIENDA Y ORDENACION DEL
TERRITORIO

INNOVACION EMPRESA Y EMPLEO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Garraioen Zuzendaritza Nagusiak elikagaien sektoreari aplikaturiko teknologiarri buruzko topaketa antolatu du

Datozen hilabeteetarako automozioaren, industriaren eta operadore logistikoen sektoreei zuzenduriko beste topaketa batzuk egingo direla aurreikusitako da

Martes, 21 de junio de 2011

Garraioen Zuzendaritza Nagusiak, Nafarroako Merkantzien Garraio eta Logistika Klusterraren I+G+B Teknologia Foroak eta Nafarroako Merkantzien Garraioak, euskaraz "RFID ELIKADURA, RFID teknologia nola aplikatu banaketa katearen kudeaketan eta trazabilitatean" dion topaketa antolatu dute Nafarroako Elikagaien Nekazaritza Klusterrarekin elkarlanean, gaur goizean, Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioaren egoitzan.



Ezkerretik eskuinera: Enrique Díaz (ANL), Jordi Termes (logistika aholkularia), M^a José Fernández Nafarroako Elikagaien Nekazaritza Klusterreko kidea, José A. Baldero Ultracongelados VIRTO enpresakoa, Javier Echarte (CTP), Teresa Oses (OSES taldea) eta OSES RFIDen Talde Teknikoko ordezkari bat

Ekitaldia elikaduraren sektoreari dago zuzenduta batez ere, eta Nafarroako hamabi enpresatako elikagaien logistikako profesionalak hartu dute parte. Ekitaldian, RFID teknologiarren bidez eta logistikaren alorrean, sistema ezartzearen kasu praktiko bat aztertuz lor daitezkeen erabilerak eta aplikazioak eman dira ezagutzera.

RFID (Radio Frequency Identification) barra-kodearen antzeko identifikazio automatikorako teknologia da, baina, RFIDen kasuan, irrati uhinak erabiltzen dira etiketa bateko datu elektronikoak zeintzuk diren jakiteko. Ezaugarri berezietako bat da etiketa ez dela ikusi behar bertako informazioa irakurtzeko. Logistikaren alorrean teknologia hori hartzen ari duen garrantzia kontuan hartuta, Garraioen Zuzendaritza Nagusiak, Nafarroako Merkantzien Garraio eta Logistika Klusterraren I+G+B Teknologia Foroak eta Nafarroako Merkantzien Garraioak RFID Teknologia Forumak antolatu zituen Eraginarekin Azterlana egin zuen 2010ean, eta, horri esker, logistikaren sektoreko Nafarroako enpresen egoera zein den jakin ahal izan zen, teknologia horren erabilerari dagokionez. Azterlana martxoan aurkeztu zen eta, aurkezpen horren ondorengo hilabeteetan, gaiaren inguruan burutu diren jarraipen ekintzak antolatzekeo abiapuntua

izan zen. Jordi Termes logistika aholkulariak martxoan egindako jardunaldiko ondorio nabarmenak azaldu ditu labur-labur.

Gaurko ekitaldiaren alderik teknikoenaz jardutea Teresa Oses eta OSES RFIDeko (RFID bidezko identifikazioa oinarri duten aplikazioak garatu eta merkaturatzen dituen) talde teknikoari egokitu zaie. Teknologiaren eta oinarritzko erabileren eta aplikazioen testuingurua labur azaldu ondoren, aurkezpenaren gai nagusia elikaduraren alorreko aplikazio espezifiko baten azalpen orokorra izan da, hau da, beharriaren azterketak, bideragarritasun azterlana, proiektu pilotua eta ezarpen eraginkorra. Aurkezpenean, gainera, ezaugarri horiek dituen RFID ezartzeak sortzen duen kostu eraginkorraren kalkulua zehatza egin dute.

Horrez gain, TAG sorta bat (etiketak) ere irakurri da, hainbat ontzi eta edukitara aplikaturikoak.

Amaitzeko, eztabaida bat egin dute, eta zalantzak argitu eta kontsultak egiteko aukera izan dute bertaratu direnek.

Urteko azken lauhilekorako beste topaketa espezializatu batzuk antolatuko direla aurreikusi da, automozioaren, industriaren eta operadore logistikoen sektoreentzat.